UDALA-AYUNTAMIENTO

# 6.22 ERANSKINA: GARRAIO PUBLIKO KOLEKTIBOA ARAUTZEN DUEN TASA.

# 6.22 ANEXO: TASA TRANSPORTE COLECTIVO URBANO

**TARIFA**

***ZERGAPEKO EGITATEA.***

**1. Artikulua**

Zergapetzen den egitatea hiriko garraio publiko kolektiboaren zerbitzua ematea izango da.

***HECHO IMPONIBLE***

**Artículo 1.**

El hecho imponible está constituido por la prestación del Servicio de Transporte Público Colectivo Urbano.

***SUBJEKTU PASIBOAK.***

**2. Artikulua**

a) Tasaren subjektu pasiboak dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34.3 artikuluak aipatzen dituen pertsona fisikoak nahiz juridikoak eta entitateak, betiere Ordenantza honek arautlutako Udal Zerbitzuaren prestazioa eskatu badute edo horren onuradun badira.

b) Ordenantza honetan arautzen den Barik txartelen erabiltzaile diren garraio-zerbitzuaren onuradun edo onuradun diren erabiltzaileak salbuetsita daude, modalitate guztietan, Bizkaiko Garraio Partzuergoak bere ordenantza fiskaletan ezartzen duen adin-mugaraino eta bertan ezarritako baldintzen arabera.

***SUJETOS PASIVOS***

**Artículo 2.**

a) Son sujetos pasivos de la Tasa las personas físicas y jurídicas y las entidades, a que se refiere el artículo 34.3 de la Norma Foral General Tributaria que soliciten o resulten beneficiadas o afectadas por la prestación del Servicio Municipal regulado en esta Ordenanza.

b) Se encuentran sujetas pero exentas las personas usuarias beneficiadas o afectadas por la prestación del servicio de transportes regulado en la presente ordenanza usuarias de las tarjetas Barik en todas sus modalidades hasta el límite de edad que marque el Consorcio de Transportes de Bizkaia en sus ordenanzas fiscales y de acuerdo a las condiciones fijadas en ellas.

***ZERGA OINARRIA***

**3. Artikulua**

Zerga Oinarria Zerbitzuaren kostu erreala edo aurreikusitakoa da, aintzat hartuta zerbitzuaren edo jardueraren kostu osoa osatzen duten zuzeneko eta zeharkako gastuak, barne daudela finantza gastuak, ibilgetuaren amortizazioa eta, hala badagokio, tasa duen zerbitzuaren edo jardueraren arrazoizko garapenaren mantenimendua bermatzeko behar direnak.

***BASE IMPONIBLE***

**Artículo 3**

La Base Imponible está constituida por el coste real o previsible del Servicio, tomando en consideración los gastos directos e indirectos que contribuyen a la formación del coste total del servicio o la actividad, incluso los de carácter financiero, amortización de inmovilizado y, en su caso, los necesarios para garantizar el mantenimiento de un desarrollo razonable del servicio o actividad por cuya prestación o realización se exige la Tasa.

***ZERGA-KUOTA***

***CUOTA TRIBUTARIA***

**4. Artikulua**

Ordenantza honek araututako zerbitzuak edo jarduerak emateko zerga-kuotak honako hauek dira:

Leioabus-hiri garraio kolektiboaren zerbitzu publikoak emateagatik

**Artículo 4.**

Las cuotas tributarias por la prestación de servicios o la realización de actividades reguladas en esta Ordenanza se fijan en la forma que sigue:

Por la prestación de los servicios públicos del transporte colectivo urbano Leioabus

**Zerbitzu edo jarduera mota -** Tipo de Servicio o actividad

| | | |
|---|---|---|
| *a.* Txartel **arrunta** bidaiako | *a.* Billete **ordinario** por viaje | **1,00 €** |

| | | |
|---|---|---|
| *b.* **Barik** txartelaren tituluak | *b.* Títulos Tarjeta **Barik** | * |

| | | |
|---|---|---|
| - Creditrans arrunta: | - Creditrans ordinario: | **0,61 €** |
| - Creditrans FN 20: | - Creditrans FN 20: | **0,49 €** |
| - Creditrans FN 50 | - Creditrans FN 50 | **0,30 €** |

(*) Gainerako txartelak (Gizatrans, Bidai 50, Bidai 70, Bidai Oro (familia ugarikoak barne) eta BBC txartela, Bilbao Bizkaia Card txartel turistikoaren barruan dagoena, Bizkaiko Garraio Partzuergoak urtero argiataratzen duenari atxikiko zaie. Hori guztia Leioako Udalaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren arteko hitzarmena (2018ko irailaren 3koa) betez. Hitzarmena, Leioan, hiri barruko garraio kolektiboaren zerbitzu erregular eta iraunkorrean kontakturik gabeko Barik txartela eta txartelean bertan sartuta dauden beste txartelak jartzeko, kudeatzeko eta ustiatzeko da.

(*) El resto de títulos (Gizatrans, Bidai 50, Bidai 70, Bidai Oro (incluidos los de Familia Numerosa) y el título BBC, albergado en la tarjeta turística Bilbao Bizkaia Card, se ajustarán a lo aprobado anualmente por el Consorcio de Transporte de Bizkaia. Todo ello de acuerdo con lo recogido en el "Convenio de Colaboración entre el Ayuntamiento de Leioa y el Consorcio de Transportes de Bizkaia para la implantación, gestión y explotación de la tarjeta sin contacto Barik y los títulos en ella contenidos en el servicio regular permanente de transporte colectivo urbano de personas viajeras de dicho municipio de 3 de septiembre de 2018".

Zerbitzua doakoa izango da sei (6) urtez azpiko haurrentzat.

El servicio será gratuito para menores de 6 años.

Alkatetzaren ebazpen bidez, proposamen teknikoari jarraituz, zerbitzuaren doakotasuna xedatu ahal izango da, gehienez ere, urtean 20 egunez, mugikortasunaren astearekin batera edo ingurumenarekin, mugikortasun iraunkorrarekin edo interes orokorreko beste kanpaina edo ekintza batzuekin lotuta.

A propuesta técnica, por resolución de alcaldía, se podrá determinar la gratuidad del servicio por un máximo de 20 días al año coincidiendo con la semana de la movilidad u otras campañas o actividades relacionadas con el medio ambiente, la movilidad sostenible o cualquier otra de interés general.

Horien guztien tarifak, modalitate guztietan, **urtero ezarriko ditu Bizkaiko Garraio Partzuergoak.**

Las tarifas de todos ellos, en sus diferentes modalidades, **se establecerán anualmente por el Consorcio de Transporte de Bizkaia.**

***ZERGA-KUOTA***

**5. Artikulua.**

***CUOTA TRIBUTARIA***

**Artículo 5.**

Sortu egiten da tasa, eta zerga ordaintzeko beharra sortzen da zerga-oinarria den zerbitzua ematen hastean. Ondore horietarako, zerbitzua ematen hasi dela ulertuko da berau eskatzen den datan.

Se devenga la tasa y nace la obligación de contribuir cuando se inicie la prestación del servicio que constituye el hecho imponible. A estos efectos, se entenderá iniciada dicha prestación del servicio en la fecha de solicitud de mismo.

***KUDEAKETA, TERMINOAK ETA ORDAINTZEKO ERAK***

***GESTIÓN, TÉRMINOS Y FORMAS DE PAGO***

**6. Artikulua.**

Tasaren likidazioa eta ordainketa zerbitzua ematearekin batera egingo dira. Dena dela, administrazioak likidatu eta ordaintzea eskatu ahal izango du eskabidea erregistratzearekin bat.

**Artículo 6.**

La liquidación y pago de Tasa se practicará simultáneamente a la prestación del servicio. La administración, no obstante, podrá liquidar y exigir su pago al tiempo de ser registrada su petición.

**7. Artikulua**

Likidazioa eta zerga-bilketa garraio zerbitzuaren operadorearen eta/edo Garraio Partzuergoaren kontura izango dira aldian behingo txartelerako eta Barik tituluetarako, hurrenez hurren.

Aurrez aipatutako Leioako Udalaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren arteko hitzarmena betez, azken horren Kudeaketako Zuzendaritzak izango du eskumena akordioak, hitzarmena eta kontratuak negoziatu, tramitatu, esleitu eta formalizatzeko –garraio zerbitzuko operadorearekin sinatu behar dena barne-, baita neurriak hartu eta egokitzapenak zein ekipamenduak egiteko ere, Barik txartela egoki ezarri, kudeatu eta ustiatu dadin.

Geroago, erabakiko den aldizkakotasunarekin, Udal Aurrekontu Orokorraren diru-sarreren egoerari dagokion aurrekontu-aplikazioan likidatu, onartu eta sartuko dira diru-sarrerak, hain zuzen ere, Leioabus-Hiri Garraio Kolektiboaren Zerbitzua emateagatiko tasaren ondorio direnak.

**Artículo 7.**

La liquidación y recaudación será a cargo de quien se encargue del servicio de transporte y/o Consorcio de Transportes para el billete ocasional y los títulos Barik, respectivamente.

En virtud del precitado convenio entre el Ayuntamiento de Leioa y el Consorcio de Transportes de Bizkaia, queda delegada en la Dirección Gerente de este último la competencia para negociar, tramitar, adjudicar y formalizar acuerdos, convenio y contratos –incluido el que ha de suscribirse con el operador del servicio de transporte-, adoptar medidas y actuaciones al objeto de la realización de cuantos desarrollos, equipamientos y adaptaciones sean precisos para llevar a buen término la implantación, gestión y explotación de la tarjeta Barik.

Posteriormente, con la periodicidad que se acuerde, se liquidarán, aprobarán e ingresarán en la aplicación presupuestaria correspondiente del estado de ingresos del Presupuesto General Municipal, los ingresos derivados de la Tasa por prestación del Servicio de Transporte Público Colectivo Urbano de Leioa_Leioabus.

**8.Artikulua**

Ordenantza honetan xedatuta ez dagoenari Kudeaketa, Diru-bilketa eta Ikusketari buruzko Ordenantza Fiskal Orokorra aplikatuko zaio.

**Artículo 8.**

En lo no dispuesto en la presente Ordenanza se aplicará la Ordenanza Fiscal General de Gestión, Recaudación e Inspección

***XEDAPEN IRAGANKORRA***

Barik txartelen tituluei dagokienez, 4.b) artikuluan jasotako tributu-kuotak murriztu egingo

***DISPOSICIÓN TRANSITORIA:***

Las cuotas tributarias recogidas en el artículo 4.b) referidas a los títulos de las tarjetas Barik se verán

dira aldi baterako, Udalak jaso ditzakeen lehorreko hiri-garraiorako zuzeneko laguntzei buruzko xedapenen arabera, horietan ezarritako ehunekoetan eta epeetan.

reducidas con carácter transitorio, de acuerdo con las disposiciones relativas a ayudas directas al transporte terrestre urbano a que pudiese acogerse el Ayuntamiento, en los porcentajes y plazos temporales en ellas fijados.